

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa. Indarrik gabe uztea Kontseiluaren uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikulua aplikazioa aldi baterako etetea

Irailaren 15eko 28/2020 Foru Dekretuaren bidez, xedatu zen aldi baterako etetea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten zituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikulua aplikazioa.

Foru dekretu horrek bigarren xedapenean ezartzen zuenez, "Etete hori indarrean jartzen denetik urtebeteko epean berrikusiko da, inguruabar ekonomikoek neurria mantentzea edo baliogabetzea justifikatzen duten aztertzeko".

Eta hirugarren xedapenean, "Foru dekretu honek 2020ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak".

Aipatutako etete hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 38.10 artikulua babesten zuen.

Etetearen unean zerga sarreraren beherakadaren, BPGren beherakadaren eta beste adierazle ekonomiko batzuen ondorioz zegoen ekonomia egoerak ekonomia arloko neurriak hartzea eskatzen zuen, sail guztiek beren partidak diru sarreraren murrizketa kontuan hartu gabe gauzatu gero gertatuko litzatekeen defizita zuzentzeko.

Testuinguru horretan eten zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikulua.

Etete hori aldi baterakoa izatea proposatu zen, neurria justifikatzen duten inguruabar ekonomikoak direla-eta, eta indarrean jartzen zenetik urtebeteko epean berrikustea aurreikusi zen, inguruabar ekonomikoek neurria mantentzea edo baliogabetzea justifikatzen duten aztertzeko.

Etetearen unean zeuden inguruabar ekonomikoek bilakaera bat izan dute harrezkero, eta, hainbat parametroren arabera, ondorioztatu da egokia dela uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikulua etete hura baliogabetzea (36/2017 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onetsi zituena).

Sindikatuari honen berri eman zaie.

Aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Foru Arauaren arabera emandako 821 zenbakiko arauen kontrol ekonomikoaren txostena.

Arauzko txostenak ikusita eta horietan oinarrituta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onetsi zituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikularen aplikazioak izan zuen aldi baterako etetea, irailaren 15eko 28/2020 Foru Dekretuaren bidez egina.

Bigarrena. Salbuespen gisa, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikuluan aurreikusitako eskaera egiteko hiru hilabete lehenago egin behar izatetik salbuestea; epe hori berrogeita bost egun naturalekoa izango da uko egiteak 2021eko azken hiruhilekoan ondorioak dituen kasuetan.

Hirugarrena. Foru Dekretu honek 2021eko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA